

Ikastolako Ohiko Batzar Orokorra

GAUR, azaroak 27, arratsaldeko 17:00etan (lehen deialdian), 17:30ean (bigarren deialdia) eta hala badagokio, 18:00etan (hirugarren deialdian) Agerialde eraikineko 3. solairuan (Alperroburu, 5) egingo dela jakinarazten dizuegu.

Batzarreko dokumentazioa bazkide diren familia eta ikastolako langileei emailaz helaraziko zaizue hurrengo egunetan. Hona hemen [deialdia](#).



Bihar, azaroak 28, jai eguna

Bihar, ostirala, irakasle eguna denez, Ikastolan **jai eguna** izango da eta HH II. zikloko (3-6urte), LH-ko eta DBH-ko ikasleek ez dute eskolarik izango. Haur eskolako zerbitzua irekita egongo da.



Jangela-zerbitzua

Jangelako bazkaldarrek honako menua izango dute [abenduan](#). Intolerantziak dituzten pertsonen menuak [honakoak](#) dira.



Erle eguna

Igandean, azaroak 30, Erle eguneko azokan DBH4-ko ikasleek gozogintza postua jarriko dute, ikasbidaiaarako dirua biltzeko. Animatu eta bertaratu postura!



Euskararen eguna

Abenduak 3an, euskararen eguna ospatuko dugu ikastolan.

LHkoekin goizean ekintza batzuk burutuko ditugu eta 11:50 aldera Mikel Laboa plazan denok elkarrekin abestuko dugu.

Arratsaldean, 16:10ean, HH-ko eta LH1 eta LH2ko ikasleekin

jolaslekuan eguna kantuz amaituko dugu. Zuek ere gurekin abestera gonbidatuta zaudete!!!



Euskarazko liburuen TRUKE AZOKA

Euskararen asteko egitarauaren barruan **euskarazko liburuen truke azoka** ospatuko dugu. Azoka hau **abenduaren 2an** ospatuko da Agerialdeko patioan arratsaldeko 16:20etatik aurrera eta bertan hainbat mahai egongo dira ipuin eta liburuekin.

Azokan parte hartu ahal izateko, zuen seme-alabek etxetik euskarazko liburu bat(zuk) ekarri beharko dituzte gelara (egoera onean daudenak) eta tutoreari eman.

Tutoreak, truke azoka baino lehentxeago, ekarritako liburu bakoitzeko txarteltxo bat emango die. Txarteltxo hori mahaian dauden pertsonen emanez nahi duten liburua hartu ahal izango dute ikasleek. Liburu bat, liburu baten truke.

Liburuak ekartzeko **azken eguna abenduaren 1a izango da** eta ekimena HH5 zein LHko ikasleei bideratua dago.

Zipriztindu ditzagun etxeko liburutegiak ere euskaraz!



Laguntza eskaera euskarazko liburuen truke azokarako

Euskararen egunaren bezperan euskarazko liburuen truke azoka antolatuko dugu ikastolan, Agerialdeko patioan.

HH5-LH6 bitarteko ikasleak animatuko ditugu aldez aurretik euren liburu bat(zuk) ekarri eta bertan parte hartzera.

Horretarako **abenduaren 2an, gutxigora behera 16:00etatik 17:00tara gurasoen laguntza** eskertuko genuke truke azoka aurrera eraman ahal izateko.

Animatuko zinateke?

Kasu horretan jakinarazi iezaiozu zure seme-alabaren tutoreari edota idatzi euskarazgattunk@udarregi.eus helbidera abenduaren 1a baino lehen.

Neguko katalogoa

Urtero bezala, Ikastolen Elkartetik helarazten duten [NEGUKO katalogoa](#) ikusi dezakezue.



Iparraldeko ikastolen egutegiak salgai

Iparraldeko ikastolek urtero egin ohi duten bezala, 2025eko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako idazkaritzan** egongo dira **salgai**. Bakoitzaren salneurria, **4 €**.



HAUR HEZKUNTZA

Liburu aurkezpena

Abenduak 4, osteguna, 18:00etan, Sutegi Liburutegian: POX, MOX eta TRUMOI: Ederra kasketa! liburuaren aurkezpena Yolanda Arrieta idazlea eta Ane Arzelus ilustratzailearen eskutik; zuzenean kontatu eta marraztuko digute liburuko istorioa. 2 eta 6 urte bitarteko haurrentzat, eta euren familientzat. Iraupena: 45 minutu. Antolatzailea: Noaia!



LEHEN HEZKUNTZA

LH6 mailako irteeraren kobrantza

LH6. mailako ikasleekin Zumaiako Flysch-era egindako irteeraren kobrantza datorren abenduaren 5ean egingo da. Kostua, **9,50 €** izango da.



Hezkidetza, sexuen hezkuntza eta tratu onak eskolan

Zuen seme-alabek, Harremanak taldearen eskutik, datozen bi astetan hainbat saio jasoko dituzte eta ondoren gurasoentzako saioa egongo da. Bertan landuko diren gaiak hauek izango dira:

- Seme alabekin izan dituzten saioetan zer landu duten azaldu, baita gela zein begiradatik behatu duten ere.
- Haurrak nola ikusi dituzten Hezkidetza, Sexuen Hezkuntza eta Tratu Onei dagokienez: berdinen arteko harremanak, autoestimua, gorputza, emozioak, tratu onak...
- Ebolutiboki zein momentutan dauden.
- Gurasoei haurrak gai hauetan laguntzeko gakoak eman.
- Zalantzak jaso eta zuen galderak erantzuteko tarteak izango duzue.



NOIZ: Abenduaren 11an, 17:00etan.

LEKUA: Agerialdeko 3. solairuan (LHko 2.zikloa)

NORENTZAT: LH5 eta LH6ko gurasoentzat.

Tailerrera etortzeko asmoa izango bazenute, mesedez bete [galdetegia](#) abenduaren 5a baino lehen.

Zorriak

LH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



BIGARREN HEZKUNTZA

DBHko irteerak

❖ DBH 3ko ikasleen irteera

Datorren ostegunean, abenduak 4, DBH 3ko ikasleak Mondragon Unibertsitatearen Galarretako Campus-era (Hernani) joango diran bisitan, goizez. STEM jardunaldi bat osatzera. Bertan STEM jarduerak burutuko dituzte, zehazki auto elektrikoaren inguruan jarduera teoriko-praktikoak.

❖ DBH 4ko ikasleen irteera

Datorren ostiralean, abenduak 5, DBH 4. mailako ikasleak

Durangoko Azokara joango dira goiza pasatzera.

Irteerako autobus-zerbitzuaren kostua **11,50 eurokoa** izango da eta

abenduaren 5ean helbideratutako errezibo bidez egingo da kobrantza.

